

lhesbide scape rooma aurrera eramateko, baliabide fisikoa, finantzieroak eta giza baliabideak izango ditugu. Abiapuntu hartuta, gure helburua da Scape Room inklusibo bat sortzea. Esperientzia honek, aniztasuna eta elkarlana oinarri hartuta, parte-hartzaile guztien trebetasunak integratuko ditu, guztiontzako eskuragarria eta aberasgarria izan dadin.

Baliabideei finantzieroak hurrengo hauek izango dira:

Eskudirua, kredituak, diru-laguntzak ditugu. Hau da, guk jarritako dirua, gazteen enpresak fundazioak laguntza ematea (mentoring, tailerrak...), Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua gustuko izanez gero, diru-laguntzak ematen ditu, Lanbidek diru-laguntzak ematen dizkie ekintzaile eta autonomoei, Bilboko Udalaren tokiko dirulaguntzak proiektu inklusiboetarako edo irisgarritasun-proiektuetarako, gizarte-berrikuntzarako eta irisgarritasunerako Europako funtsak, gizarteratzeko elkarreentzako laguntzak (ONCE, adibidez) irisgarritasun-ekimenetarako eta kenkari fiskalak negozioan irisgarritasuna eta inklusioa sustatzeagatik.

Hemen ditugu diru laguntza mota batzuk:

- [Bilboko udalaren diru laguntza](#)
- [Bizkaiko foru aldundiaren diru laguntza](#)
- [Bizkaiko foru aldundiaren diru laguntza](#)
- [La Caixa Bizkaiaaren diru laguntza](#)

Baliabide fisikoen artean, hurrengo hauek erabiliko ditugu:

Baliabide garrantzitsuena lokala da, Bilbon kokatuko gara, konkretuki Deuston kokatuta dagoen [lokal](#) handi bat.

Bestelako baliabideak, ordenagailua, arrerako altzairuak, dekorazioa, armairuak, kutxa erregistratzailea, bozgorailuak, Scape Room-eko probak betetzeko txartelak, jokuak, mozerroak, makilajea, ispiluak, lanparak, etab.

Giza baliabideak arloa, enpresaren parte garen kideak osatzen dugu:

- [Maialen Atutxa](#): Bilboko ikastetxeetara (publikoak, itunpekoak eta pribatuak) hurbilduko da, eta eskola horiekin kontaktuan egongo da, informazioa zabalduz, zalantzak argituz, zentroetara hurbilduz (geletatik pasatuko da eta zuzendaritzako taldearekin batuko da), etab. Aipatzekoa da, Maialenek Lehen Hezkuntzako gradua eta Monitoretzako ikastaroa baitituela, hortaz, hezkuntza eremuan eta hurrekin esperientzia baitauka. Gainera, martxoan pedagogia terapeutikoko ikasketak hasiko

ditu. Bestalde, sare sozialetaz ere arduratuko da (TikTok, Facebook, Instagram, web orria, etab), arlo horretan nahiko trebea baita.

- Ismene Lazaro: Arlo ekonomikoa eramango du, esperientzia duelako kontuak eramaten (saltzaile eta supermerkatuko kutxazaina baita). Horrez gain, sare sozialetako atal bat eramango du ere (Gmail, WhatsApp, telefono deiak, mezuak, etab.), bezeroekin arreta zuzena izanik. Gainera, diru sarrerak, deskontuak, bazkide txartelak, etab-ei buruzko informazioa zabalduko du eta bezeroen zalantzak argituko ditu. Gizarteratzeko goi mailako zikloko titulua du, eta horrekin batera era asertiboan komunikatzeko eta entzute aktiboa bezalako gaitasunak garatu izan ditu.
- Jon Sanchez: Elkarre ezberdinekin harremanetan jarriko da eta elkarre horietara hurbilduko da, harremana sendotzeko, informazioa emateko, haien ikuspuntuak ezagutzeko, parte-hartzaileak ezagutzeko, etab. Jonek Monitoretzako titulua dauka eta aurren Gizarteratzeko goi mailako zikloko titulua izango du. Hezitzaile bezala lan egiten du Berbaroko elkartean, hortaz, hurrekin esperientzia handia du. Gainera, bere laneko metodologia hezitzailea eta ludikoa da.
- Maialen Valle: Merchandising-a (kamisetak, sudaderak eta pultserak) eramango du eta kartelak, esku orriak, QR-ak eta triptikoak ere gauzatuko ditu, informazioa zabaltzeko eta kaletik banatzeko eta pegatzeko. Maialenek hainbat alditan lan egin du merchandising-a eramango duen enpresarekin, eta harreman estua dute.

Horrez gain, lehen aipatu ditugun enpresa ezberdineko langileak kontuan izan behar ditugu, dekorazio, arkitekto eta teknologia enpresak.